

## BALOREZKO PROPOSAMENAK

Eider, Iker, Xabier eta Ainara gara; guk egin behar dugun proiektuaren helburua jaio berriei bizi kalitate onena eskaintzea da, horrela hurrek gaixotasun gutxiago izango dituzte; horretarako umeen karroetan termometro bat ipiniko dugu. Nahiz eta hurren tenperatura zein den jakiteko termometro bat jarrita nahikoa den, guk egin behar dugun proiektua berezia izango da; izan ere, beste modu batera eramango dugu aurrera, umeen karroen heldulekuan pantaila bat ipiniko dugu eta honek ohartaraziko digu jaio berriaren egora, adibidez, hoztuta badago. Oraindik ez dago merkatuan horrelako sistema bat erabiltzen duen enpresarik, eta gu izango gara bezeroei horrelako zerbait eskainiko diegun lehen enpresa, proiektua guztiz berritzailea izanez. Gure ideiaren helburua, hurrei bizi kalitatea hobetzeaz gain, gurasoei nolabaiteko lasaitasuna eskaintzea da.



Argazkian ikusten dugun marra urdinean sentsore batzuk izango ditugu, hauek jaio berriaren tenperatura jasoko dute eta gurasoek edozein momentutan ikusi ahal izango dute pantailan. Umearen tenperatura altua edo bajua bada pantailak jakinaraziko diete. Adituek diotenez jaioberriak 22 eta 24 graduko tenperaturaren egotea da egokiena beraz kotxeak tenperatura hori erregulatuko du.

Nahiz eta gure helburuetako bat ahalik eta ezagunen egitea den, sistema hau duten edozein jaioberrien kotxeak egiten dituzten enpresei prestigioa emango lioke, beraz, beraien negozioarako ere onuragarria izan liteke. Beraien karroek, segurtasuna salduko lukete, gaur egun oso erakargarria izan daitekeena. Jaioberrien lehenengo hilabeteak oso garrantzitsuak dira, atentzio handia behar dute.

Paseatzen gaudenean, termometroak haurraren tenperatura zein den kontrolatuko du, jaio berri baten bataz besteko tenperatura 36 eta 37.3 °C bitartekoa da. Hortik gora edo behera badago, termometroak seinale bat bidaliko du heldulekuan dagoen pantailari eta honek gurasoei edo momentuan haurra zaintzen dagoenari ohartaraziko dio, pantaila piztuz eta jakinaren gainean jarriz. Adibidez 38°C azaltzen bada sukarra duela adieraziko du. Ohartarapen hau aktibatzean umea etzaten den azpian eta alboetan egongo diren sentsoreek umearen tenperatura erregulatzeaz arduratuko dira



*( Geziak seinalatzen duen lekuan pantaila egongo da)*

Gainera, jaioberriari zerbaite gertatzen bazaio, pantailan bertan agertuko da gurasoek egin beharrekoa edo egokiena izango litzatekeena, adibidez: medikura eramatea, zein medikamentu, tenperatura jaisteko aholkuak...

Horrez gain, jaioberriaren hilabete kopurua, pisua, altura, gaixotasunik badu...eta gainerako datu pertsonalak erregistratuta egongo dira, laguntza ahalik eta pertsonalena eta zehatzena izateko, horretarako pantailak aplikazio bat izango du eta bertan gurasoek lehen aipatutako datuak ipintzeko aukera izango dute.

Batzuetan lehenengo aldiz gurasoak direnean galduta sentitzen direlako horrelako egoera baten aurrean eta hau lasaitzeko eta laguntzeko erabilgarria izango da.